

## **Gazteen erdiek baino gehiagok uste dute krisiak okerrera egin behar duela**

### ***Lehendakaritzaren azken Euskal Soziometroaren datuak***

Gazteek egungo krisialdi ekonomikoa nola ikusten duten azaldu nahi dugu [Gazteen Euskal Behatokian](#), laburki.


Horretarako, egungo egoera ekonomikoari eta etorkizunaz duten ikuspegiari buruz egindako galderei Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko 465 gaztek eman dituzten erantzunetan oinarritu gara. Erantzun horiek Eusko Jaurlaritzako [Lehendakaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) prestatutako [azkeneko Euskal Soziometrotik](#) atera dira (bildumaren 52.a, hain zuzen ere).

Azterlan horren arabera, EAEko hiru gaztetatik bik uste dute gure autonomia-erkidegoko egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela (% 68). Enpleguaren egoerari dagokionez, pertzepzio negatiboa % 77raino doa.

Hala ere, norberaren egoera pertsonalari buruz galdegitean, balorazioak positiboagoak dira. Hartara, gazteen % 56k uste dute euren egoera pertsonala ona edo oso ona dela, eta % 44k, txarra edo oso txarra.

Nolanahi ere, krisi ekonomikoa dela-eta, gastuak murriztearren, gazteen % 63k (edota euren familiek) aisia-azturetan aldaketak egin dituztela diote, eta % 50ek arropa edo zapatak erosteko azturetan.

Beste aldetik, gazteei euren gizarte-klasea 0tik 10era doan eskalan (0 mailarik baxuena edo pobrea izanda eta 10 mailarik altuena edo aberatsa izanik) adieraztea eskatu zaie. Haurrak zirela, 6,0ko maila zutela deritzote gazteek; gaur egun, ordea, euren maila 5,3an kokatzen dute. Beraz, gizarte-klasean jaitsi direla antzematen dutela adierazten du horrek. Adinez nagusienak direnek, ordea, orain haurtzaroan baino egoera nabarmen hobea bizi dutela uste dute.



Krisi ekonomikoa norik pairatzen duen gogorrago galdetu zaie, eta gazteen erdiek baino gehiagok gazteak aipatu dituzte (% 59). Gazteak ez dira hori pentsatzen duten bakarrak: adin guztietako lagunek gazteak aipatzen dituzte nagusiki, galdera horri erantzutean.

Gazteak pesimistak dira etorkizunera begira. Krisi ekonomikoak lan-merkatuan duen eraginari dagokionez, erdiek baino gehiagok (% 59) uste dute txarrena oraindik heltzeko dagoela, eta nahiko gutxiago dira (% 34) krisiaren gailurrera heldu gara diotenak. Areago, gazteen % 61en iritziz, krisialdia ez da iragankorra: gure bizimoduaren aldaketa sakona bizitzen ari gara.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko hartu beharko liratekeen neurriei buruz galdetuak izan eta gero, gazteen % 66k erantzun dute gastuari eutsi egin behar zaiola, edo handitu, hazkundera pizte aldera; % 17, aldiz, murrizketak egitearen alde agertu dira.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## Más de la mitad de la juventud cree que lo peor de la crisis está por llegar

### *Datos del último Sociómetro Vasco de la Lehendakaritza*

Desde el Observatorio Vasco de la Juventud queremos presentar un breve diagnóstico de cómo perciben las y los jóvenes vascos la actual situación de crisis económica.


Para ello nos hemos basado en las respuestas dadas por 465 jóvenes de Euskadi de entre 18 y 29 años a distintas preguntas sobre la situación económica actual y sobre cómo perciben el futuro. Estas respuestas se han extraído del último Sociómetro Vasco (número 52 de la serie) elaborado por el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco.

De acuerdo a este estudio, dos de cada tres jóvenes de la CAPV creen que la situación económica en nuestra comunidad autónoma es mala o muy mala (68 %). Al ser preguntados por la situación del empleo en la CAPV la percepción negativa se incrementa hasta el 77 %.

Sin embargo, al preguntar por la situación económica personal las valoraciones son más positivas y así un 56 % de la juventud cree que su situación personal es buena o muy buena y un 44 % mala o muy mala.

En cualquier caso, con motivo de la crisis económica y para reducir gastos, un 63 % de las y los jóvenes dice haber cambiado (ellos y ellas y/o sus familias) sus costumbres de ocio y un 50 % sus hábitos de compra de ropa o calzado.

Por otro lado, al pedir a la juventud que se ubique en una escala de clase social donde el 0 es el nivel más bajo o pobre y el 10 el nivel más alto o rico, las personas jóvenes otorgan un 6,0 de media a su situación cuando eran niños o niñas y un 5,3 a su situación actual, lo cual refleja una percepción de descenso en la escala social. Esto contrasta con el colectivo de mayor edad que siente que, pese a todo, su situación actual ha mejorado sustancialmente respecto a su niñez.



Además, al ser preguntados por qué colectivo está siendo el más afectado por la crisis económica, más de la mitad de las personas jóvenes mencionan a la juventud (59 %). Esto no es exclusivo de las y los jóvenes, en todos los grupos de edad se menciona principalmente al colectivo joven como el más afectado por la crisis.

La juventud se muestra pesimista de cara al futuro. Más de la mitad (59 %) cree que, en relación a la incidencia de la crisis económica en el mercado laboral, lo peor está aún por llegar y son bastantes menos (34 %) quienes opinan que se ha alcanzado el punto más alto. Es más, para un 61 % de la juventud, la crisis no es algo pasajero sino que estamos viviendo un cambio profundo en nuestra forma de vida.

En cuanto a qué medida habría que tomar para hacer frente a la actual situación económica, el 66 % de la juventud cree que habría que mantener o aumentar el gasto a fin de estimular el crecimiento y sólo un 17 % es partidario de hacer recortes.

¡Síguenos en las redes sociales!



Enlace al Gabinete de Prospección Sociológica (en castellano):

[http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contestu/es/contenidos/informacion/v2\\_estudios/es\\_estudios/estudios.html](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contestu/es/contenidos/informacion/v2_estudios/es_estudios/estudios.html)

Enlace al Sociómetro Vasco 52 (en castellano):

[http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_52/es\\_soc52/adjuntos/13sv52.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_52/es_soc52/adjuntos/13sv52.pdf)